



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2015eko apirilaren 27, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2015.03.13).

2.- PEDRO MARI OTAÑO IKASTETXEKO ERAIKINEAN LOKALEN LAGAPENA LUZATZEKO ESKAERA, "KUTTUNA" HAURRESKOLA BERTAN KOKATZEKO.

3.- NEKAZARITZA-LURSAIL BATEN ALOKATZE KONTRATUA ESLEITZEA.

4.- E.H. BILDUK AURKEZTUTAKO OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA.

5.- 2015eko MAIATZAREN 24ko UDAL HAUTESKUNDEETAKO MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.

6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/29tik 2015/51ra).

7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2015eko apirilaren 23an

Alkatea.

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **27 de Abril de 2.015, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (13.03.2015).

2.- SOLICITUD DE PRÓRROGA DE LA CESIÓN DE LOCALES EN EL EDIFICIO DE LAS ESCUELAS PEDRO MARI OTAÑO, PARA LA UBICACIÓN DE LA HAURRESKOLA "KUTTUNA".

3.- ADJUDICACION DE CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE UNA FINCA RÚSTICA.

4.- MOCIÓN PRESENTADA POR E.H. BILDU A FAVOR DE LA SANIDAD PÚBLICA.

5.- SORTEO PARA LA FORMACIÓN DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES LOCALES DEL 24 DE MAYO DE 2.015

6.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (29/2015 al 51/2015).

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 23 de Abril de 2.015

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2015eko APIRILAREN 27an
EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAKO AKTA**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko apirilaren hogeita zazpiko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu), Aratz Alkorta Irazusta (Bildu), Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu) eta Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da, eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2015.03.13).**

Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2015eko martxoaren 13an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

**ACTA DE LA SESION DE PLENO
ORDINARIO CELEBRADA EL DIA 27 DE
ABRIL DE 2.015**

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintisiete de Abril de dos mil quince, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu), Aratz Alkorta Irazusta (Bildu), Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu) y Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(13.03.2015).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 13 de Marzo de 2.015



ZIZURKILGO UDALA

2.- PEDRO MARI OTAÑO IKASTETXEKO ERAIKINEAN LOKALEN LAGAPENA LUZATZEKO ESKAERA, “KUTTUNA” HAURRESKOLA BERTAN KOKATZEKO.

Datorren maiatzaren 24an bukatzen da “Kuttuna” Haurreskolak duen Pedro Mari Otaño Ikastetxeko instalazioak erabiltzeko lagapena.

Hau dela eta, Udalabatzak, aho batez, erabaki hau hartu du:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari lagapen horren luzapena eskatzea.

3.- NEKAZARITZA-LURSAIL BATEN ALOKATZE KONTRATUA ESLEITZEA.

“Totaldegui” izeneko Udalaren jabetzako nekazaritza-lursaila alokatzeko kontratua aurkeztu da, onartzeko

Udalaren asmoa da lursail hori alokatzea ustiatuko duen pertsona bati, eta, horren truke, itxitura osatzen amaitzea, mantentzea eta lursaila garbi zaintzea.

Horretarako, eskaintzak aurkezteko epe bat ireki zen, eta, epe horren barruan, pertsona bakarrak aurkeztu zuen eskaintza: Mikel Ugartemendia Lazkano jaunak.

Espedientea eta Nekazaritza Batzordearen aldeko txostena ikusirik.

Udalabatzak aho batez erabaki du “Totaldegui” izeneko nekazaritza-lursaila alokatzeko kontratua onartzea, Mikel Ugartemendia Lazkano jaunari esleitzea eta alkate jaunari ahalordea ematea kontratua sinatzeko.

2.- SOLICITUD DE PRÓRROGA DE LA CESIÓN DE LOCALES EN EL EDIFICIO DE LAS ESCUELAS PEDRO MARI OTAÑO, PARA LA UBICACIÓN DE LA HAURRESKOLA “KUTTUNA”.

Dado que el próximo día 24 de Mayo finaliza la cesión de uso a Haurreskola “Kuttuna” para utilizar las instalaciones de Pedro Mari Otaño Ikastetxea, donde está ubicada.

Por ello, la Corporación, por unanimidad, acuerda tomar el siguiente acuerdo:

Solicitar a la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, la prórroga de dicha cesión de uso.

3.- ADJUDICACIÓN DE CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE UNA FINCA RÚSTICA.

Se presenta para su aprobación el Contrato de arrendamiento de una finca rústica propiedad de este Ayuntamiento denominada “Totaldegui”.

La intención del Ayuntamiento es arrendar esta finca a una persona para que la explote y a cambio complete su cerramiento con su mantenimiento y mantenga además limpia dicha finca.

Para ello se abrió un período de presentación de ofertas y en ese plazo de sólo se presento la de Don Mikel Ugartemendia Lazkano.

Visto el expediente y el dictamen favorable de la Comisión de Agricultura.

Seguidamente la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el contrato de arrendamiento de la finca rústica denominada “Totaldegui” y la adjudicación del mismo a Don Mikel Ugartemendia Lazkano y facultar al Señor Alcalde para la firma del mismo.



ZIZURKILGO UDALA

Kontratua akta honen I. eranskinean jasota dago.”

4.- E.H. BILDUK AURKEZTUTAKO OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA.

Akta honen II Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

EAJ-PNVk adierazi du mozioaren kontra bozkatuko duela. Bere esanetan, osasun publikoaren alde dago, baina, hala ere, kasu jakin batzuetan, Tolosaldean esaterako, osasun publikoa eskain daiteke itunpeko zentro baten bidez, hezkuntzarekin gertatzen den bezala, inor horren kontra egon gabe. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari eskatuko lioke osasun publikoa susta dezala, ahal duen neurrian, nahiz eta itunpeko zentro baten bidez izan. Ez du uste une egokia denik klinika publiko bat eraikitzea eskatzeko.

Ondoren Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako Mozioa onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 5 (5 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, gehiengo botoekin, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

5.- 2015eko MAIATZAREN 24ko UDAL HAUTESKUNDEETAKO MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako Mahaiak III Eranskinean aipatzen diren bezala osatuak gelditzen dira.

El contrato es el que se expone en el Anexo I de este Acta.

4.- MOCIÓN PRESENTADA POR E.H. BILDU A FAVOR DE LA SANIDAD PÚBLICA.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que votará en contra de la Moción, y eso que se muestra partidario de la sanidad pública, pero eso no impide que en determinados caso, como en el de Tolosaldea, se pueda ofrecer una sanidad pública a través de un centro concertado, al igual que ocurre en educación, sin que nadie esté en contra de ello. Por ello solicitaría al Gobierno Vasco que potencie en lo posible la sanidad pública, aunque sea a través de un centro concertado. No cree que sea éste el momento adecuado para solicitar la construcción de una clínica pública.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5 (5 de Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

5.- SORTEO PARA LA FORMACIÓN DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES LOCALES DEL 24 DE MAYO DE 2.015

Se realiza el sorteo y las Mesas Electorales quedan formadas tal y como se recogen en el Anexo III de este Acta.



ZIZURKILGO UDALA

**6.- ALKATEAREN DEKRETUAK
JAKINARAZTEA (2015/29tik 2015/51ra).**

29/2015etik 51/2015era zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2015eko martxoaren 11tik apirilaren 23ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeita bost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

**O.I.
ALKATEA.**



**Vº Bº
EL ALCALDE.**

**6.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE
ALCALDÍA (29/2015 al 51/2015).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 29/2015 al 51/2015, firmados por la Alcaldía entre el 11 de Marzo y el 23 de Abril de 2.015, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinticinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

I ERANSKINA – ANEXO I

NEKAZARITZA-LURSAILA ALOKATZEKO KONTRATUA

Zizurkilen, 2015eko xxxxxxaren xxan

BILDURIK

Alde batetik: JOSE MARIA LUENGO ZAPIRAIN jauna, Zizurkilgo Udaleko alkate-udalburua.

Eta, bestetik: MIKEL UGARTEMENDIA LAZKANO jauna, adinez nagusia, zizurkildarra (Aundizabal baserria) eta 44.163.241-K NAN zenbakia duena.

ESKU HARTU DUTE

JOSE MARIA LUENGO ZAPIRAIN jaunak, Zizurkilgo Udaleko alkate-udalburu gisa, dokumentu hau sinatzeko behar besteko ahalmena duena, 2015eko apirilaren 27ko Osoko Bilkurako erabakiaren bidez.

MIKEL UGARTEMENDIA LAZKANO jaunak, bere izenean eta bere eskubideak baliatuta.

JOSE RAMON ECEIZABARRENA GARMENDIA jaunak ere esku hartu du, Zizurkilgo Udaleko idazkari gisa, eta fede eman dio Zizurkilgo 4. poligonoko 18 eta 30 zenbakidun ondare-ondasuna (nekazaritza-lursaila) alokatzeko KONTRATUA sinatzeko ekintzari.

Bi aldeek legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri UDALAREN NEKAZARITZA-LURSAILA ALOKATZEKO KONTRATUA sinatzeko, eta honako aurrekari hauek kontuan hartu dituzte:

AURREKARIAK

LEHENENGOA.-

Zizurkilgo Udalaren jabetzakoa da erregistroan honako deskribapen hau duen lursaila:

NEKAZARITZAKOA: TOTALDEGUI izeneko saila; Zizurkilgo herriaren mendebaldeko kantoian kokatua; zati batean belarra, eta bestean otea eta garoa dituena; badira bertan hainbat gartzainondo, haltz eta haritz motz; honako hauek ditu mugakide: iparraldetik, Motzanea baserriko sailak; hegoaldetik, Apalasagasti eta Mirandako sailak; ekialdetik, Pasqui, Legargain eta Motzaneako sailak; eta, mendebaldetik, herri-bidea. Banaketa baten ondoren, ehun eta hirurogeita hamaika area eta berrogeita hamazazpi zentia area ditu.

Titulua: Felipe Pou Ampuero Tolosako notario jaunaren aurrean 1993ko ekainaren 1ean baimendutako salerosketa.



ZIZURKILGO UDALA

Inskripzioa: 1205. liburukia, Zizurkilgo 37. liburua, 167. folioa, 68 zenbakidun lursaila.

Katastroari dagokionez, lursaila nekazaritzako bi lurzatitan banatuta dago: "Illarratxoeta" 30 zenbakiduna eta "Zotaldegui" 18 zenbakiduna, biak Zizurkilgo 4. poligonokoak, 160.650 m² eta 14.443 m²-koazalera fiskalekoak, hurrenez hurren.

Udal-inbentarioan sartuta dago, 0026 zenbakiarekin, eta, hori dela eta, ondare-ondasuna da.

Bi lurzati horiek basoa eta ganaduarentzako larreak dira gaur egun, eta Udalari interesatzen zaio baldintza onetan egotea eta aldiaren behin garbitzea, baso gisa eta ganaduarentzako larre gisa erabiltzen jarraitu ahal izateko.

BIGARRENA.-

Aurretik deskribatutako udal-lursailak garbi edukitzeko eta itxitura osatzeko edota konpontzeko, Udalak jakitera eman ditu alokatzeko baldintzak, eta 2014ko abenduaren 31 izendatu du proposamenak aurkezteko azken eguna.

Epe barruan pertsona bakarrak aurkeztu du eskaintza: Mikel Ugartemendia Lazkano jaunak (1020 erregistro-zenbakia, abenduaren 1ekoa). Eskaintza horretan, konpromisoa hartu du Udalak eskatutako baldintzak beteko dituela. Itxitura konpontzeaz eta mantentzeaz gain, lursail horietan gehienez 15 buru abere larri izateko konpromisoa hartu du, bai eta 250 €-ko fidantza jartzekoa ere.

HIRUGARRENA.-

2015eko apirilaren 27an Udalbatzak hartutako erabakiaren bidez, aipatutako nekazaritza-lursailaren alokairua Mikel Ugartemendia Lazkano jaunari esleitu zaio, eta berak eskainitako 50 €-ko errenta jarri zaio alokairuaren truke. Horrez gain, betebeharrak hauek ezarri zaizkio: lursailaren itxitura konpontzea eta ondo erabiltzea, lursaila sastrakarik gabe edukitzea, bertan gehienez ere 15 buru abere larri izatea, eta 250 €-ko fidantza jartzea, ziurtatzeko gaur egungo egoeran itzuliko duela aipatutako lursaila.

LAUGARRENA. -

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, Zizurkilgo Udalak eta Mikel Ugartemendia Lazkano jaunak UDALAREN NEKAZARITZA-LURSAILA ALOKATZEKO KONTRATU hau sinatu dute, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.-Kontratuaren xedea da dokumentu honetako LEHENENGO aurrekarian deskribatutako lursaila alokatzea.



ZIZURKILGO UDALA

BIGARRENA.–Kontratuak 10 urteko iraupena du (2025eko maiatzaren 1ean bukatuko da), kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita. Hasierako epea amaitzean, kontratua luzatu ahal izango da, bi aldeak adostasunera iritsiz gero. Luzapen bakoitza 5 urtekoa izango da gehienez, eta inondik inora ezingo da alokairuaren epea eta hurrengo luzapenena 20 urtez gorakoa izan. 20 urte horiek igarotzean, kontratua baliogabetuta geratuko da automatikoki, berriro luzatzeko aukerarik gabe.

Maizterrak ezingo du inolako luzapenik eskuratu, Udalak uko egiten badio aukera horri.

HIRUGARRENA.–Finkatutako errenta urteko 50 eurokoa da, eta Zizurkilgo Udalari ordaindu beharko zaio, urtero, abenduaren 31a baino lehen.

LAUGARRENA.–Behin betiko bermea ez da itzuliko edo kitatuko berme-epea amaitu baino lehen, ez eta kontratua behar bezala betetzen ez bada ere.

Berme horretan jasota geratuko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 100. artikuluan ageri diren kontzeptuak.

BOSGARRENA.–Kontratua bertan behera geratzeko arrazoiak dira Legean jasotako arrazoi orokorrak, bai eta maizterrak bere proposamenean bere gain hartutako betebeharrak ez betetzea ere. Kontratu honetan ageri diren betebeharrak ez betetzeak ere bertan behera utziko du kontratua, bereziki, lursailaren erabilera aldatzeak, lursaila eta itxitura behar bezala ez mantentzeak, eta lursailean 15 buru abere larri baino gehiago izateak.

Kontratua bertan behera geratzen bada, behin betiko bermea galduko da. Horrez gain, finkatutako epea baino lehen itzuli beharko da lursaila, eta Udalari ordaindu beharko zaizkio sortutako kalte eta galerak.

SEIGARRENA.–Espresuki galarazita geratzen da lursaila beste norbaiti uztea edo besteri alokatzea, Zizurkilgo Udalak horretarako baimena eman ezean.

ZAZPIGARRENA.– Udalak egiaztatu ahal izango du maizterra hartutako konpromisoak betetzen ari dela, eta, horretarako, lursailera sartu ahal izango da. Hala ere, bisita-eguna baino bi egun lehenago abisatu beharko dio, formalki, eta, horrez gain, bisitarako beharrezko denbora baino ezingo da bertan izan, ahalik eta kalte gutxien eginez, gainera.

ZORTZIGARRENA.– Aurreko klausuletan berariaz aurreikusi gabeko kasuei dagokienez, alokairu-kontratu honek kontuan hartuko ditu azaroaren 26ko 49/2003 Legea, Landa-errentamenduen, azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri Administrazioen ondareari buruzkoa,



ZIZURKILGO UDALA

eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategina onartzen duena.

Eta kontratu honetan ageri diren klausulekin ados daudela erakutsiz, aldeek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan ageri diren toki eta egunean.

Alkatea.

Izpta.: Jose María Luengo Zapirain.

Maizterra.

Izpta.: Mikel Ugartemendia Lazkano


Idazkaria.

Izpta.: José Ramón Eceizabarrena Garmendia



ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA – ANEXO II



OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA

Iragan abenduan, Osasun Saileko arduradunek, Guillermo Viñegra Sailburu ordeak, Rafael Uribarren Gipuzkoako osasun arduradunak eta Iñaki Berraondok (Aseguramendu eta kontratazio sanitarioko zuzendaria), Tolosaldeako alkateon ordezkariak bati, OSI, Eskualdeko osasun arreta antolakuntza integrala, aurkeztu zieten.

Aurkezpen honen bidez, 2015arekin batera, OSla martxan jarriko zela iragarri zuten eta honen bidez Tolosaldeko osasun arretak hobekuntzak izango zituela esan ere bai.

OSlak Tolosaldean gauza gutxi aldatuko ditu, arazoa ez baita OSla ezartzea, osasun zerbitzu publikoan klinika pribatu bat egotea baizik.

Klinika pribatuak, ezinezko egiten du zerbitzu integral eta koordinatu bat izatea:

- Nola integratu bi sistema, baten eta bestearen arteko helburuak eta lanerako erak desberdinak izanda. Mila bider adierazi bezala, sistema publikoak herritarrei zerbitzu unibertsala eta kalitatezkoa ematea du helburu, sistema pribatuak berriz, irabazi ekonomikoak. Ondorioz, klinikak herritarren osasunarekin negozio egiteko bitarteko guztiak erabiliko ditu bere enpresa jarduerari ahal duen errentagarritasun handiena ateratzeko. Horretarako, pertsonal ratio txikiagoak edota bestelako neurriak hartuz. Eta neurri horiek kalitatean eragina dute.
- Nola integratuko dira bi sistemak, besteak beste, programa informatikoak ez badaude oraindik orain bateratuta.

Udal honen ustez, OSI honen aurkezpena, klinika pribatuaren legitimazioa eta onarpena gauzatzeko beste pauso bat da. Beste pauso bat, sistemaren pribatizazioaren bidean.

Eskualde honetako OSI egoki bakarra, gainerako eskualde guztietakoa bezala, gestio eta arreta publiko integrala, %100ekoa, duena izan behar du.

Legealdi oso bat daramagu udal ordezkariok, eta beste eragile batzuk oraindik denbora gehiago, berdina adierazten: Osasun Zerbitzu publikoaren beharra eta honen erakusle Tolosaldean buruturiko, onarturiko eta antolaturiko:

Manifestazio, firma bilketa, mozio, adierazpen, agerraldi e.a.



ZIZURKILGO UDALA

Honen aurrean EJKo Osasun Saila, honen guztiaren aurka agertu da, eta Tolosaldeko osasun zerbitzuaren pribatizazioa inposatzen jarraitu du. Udal ordezkari, eragile eta herritarron gehiengoaren nahiari bizkar ematen jarraitu du.

Sarri adierazi moduan, Tolosaldean egiten ari direna, esperimentu bat da, pribatizazioaren esperimentua. Zerbitzu unibertsal eta publiko bat gutxi batzuen negozio bilakatzeko froga.

Sistema publikoan sinesten dugu, sistema publikoa delako osasun arreta hoberena eskaintzen duena, inori bizkar ematen ez diona eta benetan denona dena.

Ez dugu beste inon baina gehiago nahi, baina ezta gutxiago ere, berdina, gure eskubideak, besteenak adina balio dutelako, osasun sistema publikoa nahi dugu.

Eta hau gauzatzeko ezinbestekoa da bertako eragileen iritzia jaso eta kontutan hartzea. Udala horretarako prest dago, sistema publiko horren eraikuntzan, antolaketan, parte hartzeko, lanerako, ez ordea OSI publiko-pribatu batetako organo parte hartzailetara joan eta inposaketa hau legitimatzeko.

Inoiz ez da berandu hartutako erabaki okerrak zuzentzeko, Madriden gertatu bezala adibidez. Tolosaldeko bizilagunen osasuna dago jokoan, eta horrek edozein hitzarmenek baino balio handiagoa du.

Honen aurrean Zizurkilgo Udalak eskatzen du:

- Gainontzeko eskualdeetan bezala, gurean ere osasun zerbitzu publikoa bermatzea, gestio publikoa %100ean oinarri izango duena.
- 2011ko azaro aurretik anbulategietan eskaintzen ziren espezialitate zerbitzu guztiak berriz ere bertan ezartzea.
- Klinikaren publikotasuna gauzatzeko ekinbideak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari hastea eskatzea.
- Mozio hau Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde parlamentarioei, Osasun Sailburuari eta Gipuzkoako BBNNetako talde politikoei igortzea.

Zizurkil, 2015eko martxoaren 31an



ZIZURKILGO UDALA

III ERANSKINA

ANEXO III

**2015eko MAIATZAREN 24ko UDAL
HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIAK
OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

**SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS
MESAS ELECTORALES PARA LAS
ELECCIONES LOCALES DEL 24 DE
MAYO DE 2.015**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako
Mahaiak honela osatu dira:

Se realiza el sorteo y la formación de las Mesas
ElectORAles resulta como sigue:

1 - A MAHAIEKO KARGUAK CARGO MESA 1 - A	HAUTESLEA ELECTOR
Lehendakaria /Presidente	ESNAOLA ARRUTI, Aritz
1. Ordezkoa / 1. Suplente	GALLEGO SALABERRIA, Miren
2. Ordezkoa / 2. Suplente	DIEZ ALTUNA, Izaskun
1. Mahaikidea / 1er. Vocal	ECHEVERRIA AIZPURU, María Jesús
1. Ordezkoa / 1. Suplente	BAZ ARTOLA, Pedro José
2. Ordezkoa / 2. Suplente	ESNAOLA NAZABAL, Maider
2. Mahaikidea / 2º Vocal	BARATA AMADO, Gala
1. Ordezkoa / 1. Suplente	GOZNALEZ REYES, Eulogia
2. Ordezkoa / 2. Suplente	DANDATEGI UBIRIA, José

1 - B MAHAIEKO KARGUAK CARGO MESA 1 - B	HAUTESLEA ELECTOR
Lehendakaria /Presidente	TAPIA GALARZA, Clara Eugenia
1. Ordezkoa / 1. Suplente	TAPIA VILLAJOS, Eneko
2. Ordezkoa / 2. Suplente	LULOAGA ZUBELZU, María José
1. Mahaikidea / 1er. Vocal	PEREZ HOYA, Borja
1. Ordezkoa / 1. Suplente	OTEGI TAPIA, Ignacia
2. Ordezkoa / 2. Suplente	SELAS SANTIBAÑEZ, Rebeca
2. Mahaikidea / 2º Vocal	MENA PAREDES, Christian
1. Ordezkoa / 1. Suplente	OCHOA SUSPERREGUI, Guillermo
2. Ordezkoa / 2. Suplente	SARASUA ARRUTI, Angel María

2 MAHAIEKO KARGUAK CARGO MESA 2	HAUTESLEA ELECTOR
Lehendakaria /Presidente	MORALES SUAREZ, Soraya
1. Ordezkoa / 1. Suplente	AIESTARAN ZINKUNEGI, Ibon
2. Ordezkoa / 2. Suplente	ZALDUA JAUREGI, Garbiñe
1. Mahaikidea / 1er. Vocal	PASCUAL PEREZ, María Lourdes
1. Ordezkoa / 1. Suplente	SANCHEZ FERRO, Begoña
2. Ordezkoa / 2. Suplente	CAMPOS GARCIA, Inmaculada
2. Mahaikidea / 2º Vocal	COLOMO ARTOLA, Lourdes
1. Ordezkoa / 1. Suplente	BENGOETXEA ETXEZARRETA, María Luisa
2. Ordezkoa / 2. Suplente	LUCAS URCOLA, Imanol